

JUANJO OLASAGARRE Idazlea

IRITZIA

EMPAR PINEDA Lesbiana Kolektiboko eleduna

IRITZIA

Fernando Gairen egiak

A: ALDREBES: gai batek duen zentzazioa. Gehiengotan poteretik emandako mezuak aldrebes heldu baitzaizkio. Sexuaren bideratzean oinarrituta dagoen gizarte honetan gai bat ez da zenbait mezurekin identifikatua sentitzen eta hala uste du aldrebestua duela burua.

Aldrebes hitza arau hitzaren hedadura baino ez da, eta arau estatistikaren diktadura.

Dena dela aldrebes dator mundua ez bakarrik gaiatzat, afrikako beltz batentzat ere, aldrebes dator mundua, aldrebes dator kubatar batentzat eta euskaldunentzat ere, igual aldrebes da mundua.

Hala ere, hemen, hobe aldrebes.

B: baina ala gainera eta bost: jo lagunekin ari zaretela afaltzen, jo haragia ona dela, ardoa hobea eta gauarekin batera giro ederrean doala dena eta halako batean Urliari buruz mintzo dela norbait oso pertsona jatorra da baina marikoia / lesbiana da ala hori erabateko maltzurra da eta gainera marikoia / lesbiana.

Izan ere ondorioa bost da, bost ajola bakoitza zer den, bost ajola norekin sartzen den ohean.

CH: Charlus Baroia: Marcel Prousten nobelako pertsonai homosexuala.

D: Desberdintasuna: zenbait gaik aldarrikatzen duten eskubidea, errespetoarekin batera etorri beharko litzatekeena, ezen ez baitira nahastu behar errespetoa eta denok berdinak izatea.

E: EGHAM eta emagizona: Euskal Herriko Gai Askapenerako Mugimendua.

Emagizona: andregizona: gizon afeminatuari esaten zaio. Badirudi gure gizarte honetako zenbait sektore 'progrek' eraman ahal duela homosexualitatea, ez ordea homosexuala izateaz gain andregizona izatea.

F: Faxismoa: Desber-

dintasuna onartzen ez duen sistema politiko mota.

G: gettoa: ardiak arditara, ahuntzak ahuntzetara dio esatera zaharrak. 'Klase horretako' jendea elkartu egiten da eta denak leku berdinetara joaten dira, dena berberetara, ostatu berberetara, horrela gizarte honen gizarte paralelo bat sortu da gettoaren lege estuak ezarriz. Horrela gai hitza derrigorrezko bihurtu da hitz elkarketa guztietan: gai-ostatuak, gai-bidaiak, gai-giroa, gai-olimpiadak. Identitatea dator gero, alegia leku berberetara joaten direnak gai-identitatea dute, gai izatearekin nahikoa balitz bezala!

H: harrotasuna: harro paratzen dena seguru ez dagoenaren seinale.

I: Ikertu, infernua: esana dago Ikertu, izena eman, izana izenarekin batera legeztatu, zigortu, baztertu. Gizarte modernoak hartzamar luzeaz arakutzen ditu bere hiritarren garunak, bisturia sartu eta gaixotasun mentalen tipologia egin du, izena eman ondoren legea edo zigorra, nahi duzuen bezala, egokitzeo, horrela asmatu dira paranoia, eskizofrenia eta beste 'eromen' guztiak horietan barne homosexualitatea, izena emanda legea prest.

Infernua: 'jende klase hori' eta beste makur batzuk joanen diren tokia.

J: joera: sexualitatea ez da gauza aldagaitza, beraz pertsona bat ohera daiteke gaur sexu berekoarekin eta bihar beste sexuko pertsona batekin.

K: koldarra zenbait lekutan eta girotan marikoi hitzaren sinonimoa.

L: lesbiana: emakumeekin oheratzen den emakumeari esaten zaio. Badira, nola ez, izen mesprexugarriagoak emakumearekin: bi auzo-erdaretan. Hiztegi erotikoa begiratu baduzu lesbianeek euskaraz izenik ere ez dute merezi.

M: marikoia: maritxua, porkulista, atzelaria eta abar luze batez esaten zaie sexu bereko gizonekin oheratzen direnei, emakumeak ez bezala hauek gutxienez, eskerrik, merezi dute izena.

Matxismoa: bat izateko bes-teen zapalkuntzan oinarritzen den joera sexual eta soziala.

N: natura: gaiek aldrebes dutena, kontratura esaten baitzitzaien antzina sexu berekoen arteko harremanari.

O: ogena: gai batek, dena izateagatik, eraman behar duen zama astuna.

Parkea: munduko parke guztietan ligatzen dute gaiek, beti ere ilunbeten babesean, izkutuan eta leku askotan gartzelatu ere egiten dituzte horregatik. Parketara joaten ohi dira gaiak jipoitzera asko eta asko eta ez denak naziak, prezisamentean.

Pekatu: eliza santuak pekatu-tako hartzen ditu sexu berekoen arteko harremanak, gizarte santuak gizalegearen kontrako iraintzat.

S: sekretua: sekretua da gai baten bizitzan derrigorrezkoa dena, ezin du inork jakin zertan ari den eta askotan bere lagun minenak ere ez dute jakiten non pasatzen dituen gauak.

T: triangelu arrosa: naziek gaiak hartu eta konzentrazio eremuetara sartu zituztenean triangelu arrosa paratu zieten ikur gisa, judutarrei horia suertatu zitzaizkien.

Triangelua: bi pertsonak beste hirugarren batekin maitasun harremanak dituzteneko egoera. Ikus daitekeenez gaiak ez dira hain arraroak.

U: ukoa: zenbait gaien lagunak joera, bere lagunak gai aukeratu duela ikusi nahi ez izana.

X: XXY: amerikar zientzilariek aurkitu duten gai-gene berria.

Z: zerua: gaiak eta beste izaki makur batzuk joanen ez diren lekua.



25 urte ixiltasuna apurtzen

New Yorkeko poliziarri 1969ko ekaineko egun haietan aurre egin ziotenek, pentsatu ere ez zuten egiten egungo gay eta lesbianen mugimendua abian jartzen ari zirenik! Gaur, hogeitabost urte geroago, Gay, Lesbiana eta Transexualen Nazioarteko Egunaren ospakuntza mundu osoko herrialde ugariara zabaldu da. Hogeitabost urte iragan dira ixiltasuna, marjinalitatea eta intolerantzia apurtzen; eta hainbat kasutan, gure aukera sexuala ezkutuan bizitzeari uko egin diogunon aurkako jazarpen huts eta gogorra.

Gauzak aldatu egin dira. Askok. Poliziaren sarekadekin nazka-nazka eginda zeuden gay, transexual eta lesbianen oldartzearen lekuko izan zen New York, ekitaldi ugariaren eskenatoki izaten ari da eguntan. Euren artean, mundu osotik etorritako ehundaka mila lagun bilduz, Stone Wall-eko gertakariaren 25. urteurrena oroitarazteko egin den manifestaldia.

Espainiako estatuan, frankismo garaian homosexualitatea zigortzen zuten Gizarte Arriskuko Legearen artikulua haietatik, gobernu zentralak hilabete gutxi barrurako egitezko bikoteak —osatzen dutenen sexua kontuan hartu gabe— legeztatuko dituen legearen promulgazioa iragarritza pasara gara. Era berean,

dozenaka dira inskribatu nahi duten bikoteak biltzeko Udal Erregistroak zabaldu dituzten udalak —Gasteizkoak hasitako ereduari segituz—.

Otsailaren hastapenetan, Europako Legebiltzarrak homosexual eta lesbianen berdintasunaren inguruko erresoluzioa onartu zuen, geure kolektiboek egindako aldarrikapen ugari jasotzen dituen. Keinu formal hutsean gera ez dadin, presio asko beharko da, sexualitatea heterosexualitatearekin nahasten ez duen arriritzirik gabeko sexualitate baten alde borrokan dihardugunon indar bateratua.

Aurrerakada guzti hauek ez dira hutsetik sortu. Alderantziz, ahalegin handia behar izandu da, borroka asko: gay, lesbiana eta transexualok gizaratean topatutako zailtasunei aurre eginez geure sexualitatea harrotasunez bizi dugun jende normala garelako erakusteko gogo itzela. Baina oraindik asko falta da diskriminazio guztiak (eta asko dira) desagertarazteko. Honela, gobernuak iragarri duen Legeak ez du adopzioarako eskubidea aitortzen. Sexu aldaketarako ebakuntzak Osasungintza Publikotik kanpo daude. IBERIAK hitzarmenean adostutakoa ez du betetzen. Eta horrela, zerrrenda luze bat. Ea beste hogeitabost urte baino lehen amaitzen den.

Ahalegin behar izandu da aurrerakada guzti hauek lortzeko, borroka asko.



Errenteriako Udala

"Homosexualitatea norberaren sexualitatea bizitzeko era bat da. Fenomeno normala da, naturala, eta ez du pertsona desberdin bihurtzen".

Informazio sexualerako zerbitzua:
Asteazkenetan, 18.00etatik 20.00etara.
Gazteentzako informazio bulegoan
Madalena K., 27 — Tfnoa: 52 89 69



Urrian berriro ere egongo gara zurekin